

Euskaltzaindia 2011/06/25ean

Euskaltzaindiako euskaltzainbürrü den Andres Urrutia Jaunari eta heben diren Euskaltzain güzier (eta memento egiazki ahalkegarria (lotsagarria) da enetako), honki jin beroa Xiberoan eta Maulen. Maulerako bidea lüze izan da zuentako zonbaiten goiz hontan, eta eskertzen zütuet ere horregatik.

Nolaz ez keinü berhezi bat egin bi Euskaltzain Xiberotarrer, direnak Txomin Peillen eta Jean-Louis Davant !

Bai eta ere, hemen diren haütetsi, ardüradün, kargüdün, euskaldün ororer, honki jin Xiberoan eta bereziki heben Mauleko Maule Baitha zinegela hontan.

Xiberoa eta Mauleko herriek gozatzen due egün, Euskaltzaindiari batzarri egitearekila emanik izan zaien parada. Lehenik Battitu Coyos eta gero Aurelia Arkotxa, Maulerat jin dira egüñaldi honen gureki prestatzeko. Eta ontsa ohartü gira zer gertakari ezohizkoa zatekean gure herriarentako.

Beste gertakari bat ere badügü Maulen egün berean, hau da Xiberoan Euskaraz Bai Eguna. Bi gertakarien üztartzea honartü dü Euskaltzaindiak, eta uste düt bi gertakariek bata bestea hazten düela. Alde batetik, Xiberoan Euskaraz Bai Egünak, Euskaltzaindiak ekarten beiteio beharrezkoa den ofizialtarzün marka, eta best'alde, Euskaltzaindiak Xiberotar gizarteari edo jentarteari, bere lanen eta ebilmoldearen hobeki erakusteko paradabeitü, heben izatez.

Izena badakigü, bena züen ikustea eta entzütea beharra badügü eta hortaz zinez egarri gira.

Eta denek dakigü nolaxe ofizializatü eta indartü beharra düan euskarak Iparralde hontan, eta bereziki Xiberoan. Damürik, aski seinale badügü erraiten deiküena zer egoeretan den Xiberotar euskalkia, ohartzen girelarik zonbat gaitz den maskarada elibaten antolatzea euskaradün gazte eskazagatik, bena bai eta ere, zer problema baden pastoralak folklorealat lerratsetik etxekitzeko !

Euskaltzaindia berme azkarra eta beharrezko da ofizializatze bide hortan.

Ürrentzen düt batzarri hau agur bero bat lüzatzez mementoan gordatzen deiküzüen gizon bat, erran nahi düt Battitu Coyosi, Mauleri, bere sorterriari, pentsatü beitü bere kargü-hartze ofzialarentzat, eta gisa horrez Euskaltzaindiaren errezebitzeko parada eman beiteikü. Gehit niro erranez ohore handia dela Mauleko herriarentako ere, Euskaltzain baten kontatzea bere semeetan orai ! Eskerrik hanitx Mauletar semea den Battitu Coyos jaunari !

Ordüan, bihotz zolatik, ene baithatik et Xiberoaren izenean, batzarri hon eta ohore Euskaltzaindiari, eskerrik hanitx eta egüñaldi hon eta beroa ororer.

Michel Etchebest,
Mauleko aüzapeza

Bienvenue à Mauléon et en Soule à l'Académie de la Langue Basque Euskalzaindia, l'académie royale de la Langue Basque comme nous l'a précisé Aurelia Arkotxa récemment, lors de la préparation de cette journée.

Bienvenue à vous Andres Urrutia, président de cette institution, et à tous les membres académiciens ici présents et qui ont fait pour certains une longue route pour arriver jusqu'à nous.

Bienvenue également à tous les élus ici présents, et j'aurais du mal à citer tout le monde sans commettre d'impair, mais aussi à tous les responsables, et finalement à tous les Basques ici présents dans cette salle du cinéma Maule Baitha.

Un salut particulier à nos deux académiciens Xiberotar que sont Txomin Peillen et Jean-Louis Davant. Honki jin ororer.

La Ville de Mauléon est très honorée d'avoir été sollicitée pour organiser cet événement de ce jour. Evénement exceptionnel que d'accueillir l'académie et les académiciens de notre langue, surtout dans la plus petite et sûrement la plus fragile des provinces du Pays Basque, au niveau linguistique s'entend. Merci à vous.

Ce même jour, une autre manifestation se déroule, Xiberoan Euskaraz Bai, dédiée à la langue basque, avec des animations toute la journée sur la place des Allées. Euskalzaindia a accepté de s'associer à cette journée, et je crois que c'est une bonne chose car l'un, Euskalzaindia, apporte la note d'officialité nécessaire à Xiberoan Euskaraz Bai, alors que la journée Xiberoan Euskaraz Bai permet à l'académie d'ouvrir plus largement son audience sur son identité et son travail, du moins à tous les Souletins.

Et nous savons tous que l'état de la langue basque est préoccupant en Iparralde, et particulièrement en Soule. Nous avons des signes qui ne trompent pas, quand de moins en moins de villages sont en capacité de trouver des jeunes de 20 ans bascophones pour organiser une mascarade, ou quand le risque est grand de voir les pastorales glisser vers le folklore toujours à cause de la baisse du vivier de locuteurs. Euskalzaindia est le support indispensable à cette démarche d'officialisation et de reconnaissance à laquelle nous aspirons tous.

Et je terminerai en remerciant Battittu Coyos, fils de Mauléon, d'avoir pensé à sa ville natale pour l'organisation de son intronisation officielle.

Si la commune de Mauléon est honorée d'accueillir Euskalzaindia, elle est aussi très honorée de pouvoir compter un académicien basque dans ses rangs dorénavant.

Eskerrik hanitx Battittu.

Bienvenue et merci encore à Euskalzaindia, bon travail et bonne journée à tous.

Michel Etchebest,
Maire de Mauléon